

# Zebarri

ETXEBARRIKO EUSKALTEGIKO IKASLEEK EGINA  
2007ko UDA

UDA ERE, EUSKARA IKASTEKO  
SASOI EGOKIA IZAN DAITEKE

Ale honetan: Euskaltegiaren Jaia  
Jürgen Wolff  
Korrika 15  
Poloniar euskaldunak  
...eta abar




**ULIBARRI**  
EUSKALTEGIA



Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia  
Kultura Salla  
Departamento de Cultura





# EUSKALTEGIAREN LEHENENGO JAIA

Hemendik aurrera, urtero egingo den bezala, Euskaltegiak jaia antolatu zuen maiatzaren 29an. Oso arrakastatsua izan zen, batez ere, ikasleen parte-hartzeagatik.

Goizean goiz hasi zen jaia, egun horretarako apaindutako Bekosolo parkean. Hasiera emateko, ikasleen arteko lehiaketa egin zen. Lehiaketan zenbait proba egin behar izan zituzten talde hori, urdin gorri eta zuriko ikasleek. Besteak beste, saskibalioa, penaltiak eta galdera-probak. Baina Pintxo Lehiaketa izan zen ikasleentzako erronkarik handiena. 20 osagai mahai gainean, talde bakoitzak 5 osagai aukeratu eta hamarna pintxo egin behar izan zituen. Aurkezpena eta zaporea baloratu ziren eta talde zuria izan zen irabazlea, "Gazi Geza" izeneko pintxoarekin.



Lehiaketa eta gero ardo ona nola dastatu behar den ikasi genuen, Bizkaiko zein Gipuzkoako txakolina, Errioxako ardoa Bierzokoa eta Mallorkakoa. Guztion gusturako ardoak egon ziren, batzuek txakolina nahiago, beste batzuek Mallorkakoa....



Ardoa dastatu eta gero bazkarirako txorizoak prestatzen hasi ginen.


bakoitzak jateko goxo bat ekarri zuen. Horrela osatu genuen mahaia eta futbito zelaietan bapoz bazkaldu genuen.








Eta bazkaldutako ondo digeritzeko eta onena dantzan egitea da. Horretarako inprobisatu zen dantza-ikastaro txikia, Emioberen eskutik. Berak hurrengo pausua zein izango zen agindu eta ikasle zein irakasleek horri jarraitu.



Eta Euskaltegiaren lehenengo jai honi amaiera ezin hobea emateko Marsel magoa izan genuen, bere trikimailuekin harrিতuta utzi gintuen. Gu eta Bekosolon zeuden ume mordoak. Magikoa izan zen eguna.

**DATORREN URTEAN, GEHIAGO!!!!**





# KORRIKA 15 HELDU!!!

**korrika 15**  
**KARRANTZA-IRUÑEA 2007**  
MARTXOAREN 22tik APIRILAREN 1era




Gau "epikoa" izan genuen Etxebarrin martxoaren 26tik 27rako gauean. Izan ere, bi urtean behin gertatzen den bezala, Korrikak hartu zituen Euskal Herri osoko errepideak, Karrantzatik Iruñera. Etxebarritik ere igaro zen, noski. Eta lehen "epiko" hitza erabili dugu benetan "epikoa" izan zelako. Euri jasa izugarria izan genuen aste osoan eta eguraldiak gure kontra jarraitu zuen Korrikak Etxebarriko 3 kilometroak bete zituenean. Hori guztia gutxi balitz, euriaren ondorioz, pixka bat atzeratuta heldu zen Etxebarrira.

Oztopoak oztopo, gaueko 4ak ziren Aperribatik zetorren lekukoa agertzen ikusi genuenean. Momentu horretan hartu zuen Etxebarriko Udalak lekukoa eta Etorbideko errotondara eramane eta gero eliza parean eman zion Soinuzaleri. Hortik, Udaletxera joan ginen eta bertan zegoen Patri Euskaltegiaren kilometroa betetzeko prest.

Momentu horretan 50 pertsona geunden lekukoaren atzetik, euskararen alde. Eta horren ondoren herriko zenbait elkartek eramane zuten lekukoa Basauriraino, Ostotsek, Mugarrik eta abarrek.





# JÜRGEN WOLFF


Jürgen Wolff alemaniarra da. 1984an Madrilera joan eta hantxe ekin zion euskara ikasteari, bere kabuz, liburu batekin eta borondate handiz. Gaur egun, hitzaldiak ematen ditu, eta abenduaren 19an euskaltegian izan genuen, bere esperientziak kontatzeko eta ikasleak laguntzeko beldurra kentzen.

Badakigu zein zaila den euskara ikastea, eta badakigu zein zaila den ikasitakoa praktikan jartzea, horregatik Jürgenek azaldu zigun zer egin behar dugun gure bizimodua euskalduntzeko eta



hitz egiten dugunean korapilatzen garenean nola irten estualdi horretatik, hori guztia umore dosi handiekin. Hauxek ziren bere aholku batzuk:

1. Intonazioaren bidez edota 'nola esaten da \_z' galdetuz laguntza eskatu.
2. Mimika, keinuak edo marrazkiak erabili.
3. Isilik gelditzea baino hobe da gutxi gora behera hitz egitea. "Ostruka" esaten ez badakizu, esan "txori handia".
4. Zure hitz propioak eratu. "Labaina" esaten ez badakizu, esan "mozkailu" eta hitz zuzenarekin erantzungo dizute. Horrela hitz berriak ikasten dituzu.
5. Parafraseatu, definizioak eta sinonimoak erabili. "Esnea", "behiaren ur zuria" da.
6. Hizkuntza bakoitzak ordezkari bezala erabili daitezkeen hitzak ditu: zera, truc, chisme, Ding
7. Zure bizilagunari galdetu. Seguruenez Amazonasen galduta ibili zenean bertakoeekin hitz egiteko erabili zituen trukoak jakingo ditu.



# POLONIARRAK ETXEBARRIN

Otsailaren 2an zortzi neska poloniar etorri ziren euskaltegira bisita egitera. Aurreko urteotan, Lezaun eta Arantzazuko barnetegietan ibili dira euskara ikasten. Aurten, berriz, Zeberion egon dira.

19- 24 urte bitarteko gazteak dira eta guztiak hizkuntzalaritzari lotutako ikasketak burutzen ari dira.

Poloniako ohitura, hizkuntza, kultura eta gizartearen berri eman ziguten eta hemengoekin alderatu genituen.

Adibidez, argazkian ikusi ahal dugu euskarazko eta polonierazko hitzak elkartzeko proposatu ziguten jokua.

Aipatzekoa da gehienek, hizkuntza bi baino gehiago ezagutzen dutela eta hauen artean euskara. Poloniako unibertsitatean euskara ikasteko aukera izan dute. Zailtasunak zailtasun, aurrera egin dute euskararekin, maila diferenteak dituzten arren ondo asko moldatzen dira, izan ere, haietako batek EGA lortu du.

Oso gustora ibili ginen denok elkarrekin solasean eta eskertzekoa da euskara eta euskal kulturarekiko duten begirunea.







# ETXEBARRIKO ZERBITZUAK

Etxebarrin aukera zabala dago gauza asko egiteko eta aisialdia pasatzeko. Helduetatik hasita txikiekin bukatuta. Esate baterako, "Cime"a. Honek, ikastaro asko eskaintzen ditu eta gaitera, ordenagailua erabil daiteke bi orduz egunero musutruk.

Beste alde batetik, bi liburutegi daude. Bekosolokoak sari asko jaso ditu irakurzaletasuna bultzatzeagatik. Hemengo bazkide-karnetak Euskal Herriko 219

antolatzen dira; gabonetan, inauterietan, urtaro kulturalak, ikasturteen bukaeretan festak...

Ildo beretik jarraituz, umeentzat dauden ekintzak aipatuko ditugu. Bi ludoteka daude herrian. Egunero bi orduz zabalik daude, 17:00etatik 19:00etara. Gauza asko egitea daukate, hala nola, irakurri, jolastu.... Asteburuetan ludotekak itxita egoten dira baina "Tarrasta Kultur Elkarte" daukate.

Kultur Elkarte honetan, etxerako lanak egin ditzakete eta honetaz gain, hainbat leihaketetan parte har dezakete. Era berean, hainbat tailer daukate aisialdian oso ondo pasatzeko; gastronomia, interneta, eskulanak.....

Garraiobideen aldetik, eskaintza zabala da. Metroa, trena, autobusa eta "lanzadera" dago. Nahiz eta garrado zerbitzuak asko hobetu diren, oraindik ez dira onenak. "Lanzaderak" maiztasun gehiago eduki


beharko luke, ibilbidea hedatu beharko litzateke eta prezioa merketu beharko litzateke.

Amaitzeko esan nahi dugu oso gustora gaudela gure herrian dauden ekintza eta zerbitzuekin. Hortaz, gainontzeko udalak berdina egitera animatzen ditugu!!!



liburutegitan balio dizu. Liburutegitik 6 dokumentu atera ahal izango dituzu gehienez eta sarean dauden gainontzeko liburutegietatik beste 10; 5liburu eta 5 material berezi.


Bestalde, herrian badago aukera hainbat ikastaro egiteko; eskulanak, areto dantzak, aerobik, spinning, padela, igeriketa, batuka, arte-martzialak, musika, margolaritza..... Horrez gain, urtean zehar ekintza gehiago



# IKASTURTEKO ARGAZKI-BILDUMA





## INAUTERIAK




## POLONIARRAK



## SAGARDOTEGIA








# IKASTURTEKO ARGAZKI-BILDUMA

## EUSKALTEGIAREN JAIA

## KORRIKA





## SAGARDOTEGIA 2007

Urtero bezala, Euskara Zerbitzuak antolatuta Gipuzkoa aldera joan ginen urteko sagardoa dastatzera, euskaltegiko ikasleak eta beste herritar batzuk.


Baina, sagardoaz gozatzeaz gain Oiartzunen Juan Mari Beltranek duen museoa bisitatu genuen.

Euskal musika tresnen museoa da, baina, berak esan zuen bezala, ez dago leku bakar batekoak diren musika tresnak, unibertsalak dira guztiak.

Museoa txikia izan arren musika tresna mota asko dago bertan txalaparta, txistuak, gitarrak, danborrak, tronpetak, organoak, akordeoiak, gaitak, biolinak eta abar, zaharrak eta berriak. Gainera, Juan Mari musikari trebea da eta bitrinetako tresnak atera eta jotzen zuen, soinuak erakusteko.

Oso erakustaldi polita, beraz.

Museoa ikusi eta gero, oso hurbil dagoen sagardotegi batera joan ginen, ohiko menua dastatzera eta 2007ko sagardoa ona ala txarra den probatzera....bueno, ondo probatu ere.







## PINTXOAK



### BARATXURI FRESKOEN NAHASKIA GANBEKIN

#### Osagaiak:

- Baratxuri freskoak
- Ganbak
- Arrautza
- Gatza
- Baratxuria

#### EGITEKO MODUA

Ganba gordinak zuritu eta txikituak zartagin batean olio eta baratxuriarekin bota. Ganbak eta baratxuria apur bat gorritu eta gero, baratxuri freskoekin irabiatutako arrautza gehitu eta sikatzen utzi barik eragin pixka bat.

### MUSKUILU PASTELA

#### Osagaiak:

- Muskuiluak
- Piper berdea eta gorria
- Tipulina
- 4 arrautza
- Esnegaina
- Margarina
- Gatza

#### EGITEKO MODUA

Tipula eta piper txikituekin sofrito bat prestatu. Muskuilu egosia eta txikituarekin nahastu. Beste aldetik, esnegaina eta arrautzek irabiatu eta lehengo sofritoarekin nahastu. Guztia gazitu. Labeko moldea margarinaz igurtzi eta bertan aurreko nahasketa bota. Labean sartu ordu betez 210 gradutan Maria bainuan. Moldeko ogian zerbitzatzen da.



# HOROSKOPOA



**ARIES** ( martxoaren 21etik apirilaren 20ra)

**Lana:** Arazoak izango dituzu lankide batekin, pentsatu ondo hitz egin baino lehen.

**Dirua:** Zure gastuak kontrolatu behar dituzu. Hilabete honetan aparteko gastuak eduki ahal dituzu. Orain ez da mementurik onena zure apetak betetzeko.

**Amodioa:** Eztabaida asko izango dituzu zure bikotearekin, hobe duzu zuregan pentsatu orde, zure bikotearengan pentsatzea.



**TAURUS** (Apirilaren 21etik maiatzaren 20ra)

**Lana:** Zure nagusiek zure lana goraipatuko dute.

**Dirua:** Diru kopuru garrantzitsua helduko zaizu. Gustatzen zaizun autoa erosi ahalko duzu.

**Amodioa:** Bikotea baduzu, elkarrekin mementu onak igaroko dituzue. Bikoterik ez baduzu, pertsona interesgarri bat ezagutuko duzu. Animo!



**GEMINI** (maiatzaren 21etik ekainaren 20ra)

**Lana:** Litekeena da lanean arazoren bat edukitzea.

**Dirua:** Proposatutako guztia lortuko duzu.

**Amodioa:** Lasai egon, sentimenduak direla eta bizitza konplikatzen jotzen baituzu.



**KANTZER** (ekainaren 21etik uztailaren 22ra)

**Lana:** Aukera berriak edukiko dituzu aldaketa inportanteak egin ahal izateko. Animo!

**Dirua:** Diru-sartzeak handituko dira eta mementu ona da inbertsioak egiteko

**Amodioa:** Errastazun handia edukiko duzu proposatutakoa lortzeko. Desioa piztuko duzu besteengan.



**LEO** (uztailaren 23tik abuztuaren 22ra)

**Lana:** Zure lanean gora egingo duzu. Zure lankideekin afari bat edukiko duzu

**Dirua:** Loterian jolas ezazu, zorte ona edukiko duzu, hala ere, kontuz ibili eta zure poltsikoa kontrolatu!

**Amodioa:** Bikotea baduzu, kontuz! berarekin ezkontzeko eskatuko baituzu. Bikoterik ez badaukazu, lasai! hurrengo jaietan zure azukre koxkorra aurkituko duzulako.




**VIRGO** ( abuztuaren 23tik irailaren 22ra)

**Lana:** Langabezian bazaude, hemendik bi hilabetera enpresa garrantzitsu batetik deituko dizute eta nagusi izatera helduko zara.

**Dirua:** Hasieran oso larri ibiliko zara baina apurka-apurka harrien azpian ere dirua aurkituko duzu.

**Amodioa:** Datorren urteko uztailean ezkonduko zara. Zorte on!





# HOROSKOPOA



**LIBRA** ( irailaren 23tik urriaren 22ra)

**Lana:** Lan egiten ari zara baina ez daukazu kontratu finkorik baina, hemendik sei hilabetetara finkoa izando zara.

**Dirua:** Auto bat erosiko duzu baina laster salduko duzu diru gutxi edukitzeagatik.

**Amodioa:** Zure bikotea taberna batean ezagutuko duzu. Ataka Paka!



**ESKORPIO** ( urriaren 23tik azaroaren 22ra)

**Lana:** Zure nagusiak akosatuko zaitu, kontuz ibili! Adi egon!

**Dirua:** Diru asko gastatuko duzu, esne mamitan biziko zara!Aupa hi!

**Amodioa:** Ez da garai ona izango amodiorako. Jupiterrek zure atea joko duen arren, Merkuriok ez dizu zabaltzen utziko.



**SAGITARIO** ( azaroaren 24tik abenduaren 21era)

**Lana:** Bulegoan gauzak pixka bat nahastuta egongo dira, kontuz ibili!

**Dirua:** Diru gehiegi gastatzen duzu, komenigarria da festa hauetan zure poltsikoa zaintzea.

**Amodioa:** Ez diozu ezertxori beldurrik izan behar, amodioa zure bizitzara helduko da, utz iezaiozu sartzen!



**KAPRIKORNIO** ( abenduaren 24tik urtarrilaren 20ra)

**Lana:** Zure nagusia urduri egongo da eta lan gehigarria aginduko dizu, lasai egon!

**Dirua:** Oso zaila da sari bat egokitzea baina, hala ere, saia zaitetz!

**Amodioa:** Arazo asko edukiko dituzu zure bikotearekin, saia zaitetz eztabaidak sahiesten!



**AKUARIO** ( urtarrilaren 21etik otsailaren 18ra)

**Lana:** Lanaz aldatzeko ordua da. Deitu zure lagunei eta eskatu aholkuak.

**Dirua:** Loteria erosi! Zortea zure alde dago!

**Amodioa:** Pasientzia eduki, zure bizitzako amodioa ez da heldu oraindik. Ez nahastu laguntasuna amodioarekin.



**PISCIS** (otsailaren 19tik martxoaren 20ra)

**Lana:** Laneko paperak ordenatu behar dituzu. Agenda bat erosi eta zure lana atondu.

**Dirua:** Daukazuna baino gehiago gastatzen duzu.

**Amodioa:** Zure bikotearekin afaltzera eta filme on bat ikustera joan, betirako izango da zuretzat!



# TXISTEAK

## AGUREA

Agure batek galdetzen dio Jaimitori: "Aizu Jaimito, zenbat urte pentsatzen duzu ditudala?" "Sentitzen dut baina ehun arte bakarrik dakit zenbatzen"-erantzuten du.

## POXPOLUAK

Taberna batean Frantziar bat, Ingalaterrako bat eta Euskaldun bat elkartzen dira. Frantsesak galdera bat egiten die besteei: "Nik bi pospolu dauzkat, ea nork egin dezake pospoluekin zenbakirik altuera, ados? gaitzen duenak poteak ordainduko ditu." Besteek baietz erantzun zuten.

Frantsesak, ---(11) egiten du poxpoluekin, ingelesak---(L zenbaki erromatarra=50) eta euskaldunak---(69)

## ERREPIDEA

Trafikoan lan egiten duen guardia zibil batek egun librea dauka eta bere planak egiten hasten da. Bat-batean telefonoz deitzen diote lanera joan behar duela esanez. Lanera joaten da baina oso aserré eta pastasen den lehen kotxeari isun bat jarrito diola pentsatzen du.

Kotxe bat pasatzen da baina justu munduko gidaririk onena da barruan doana. Hala ere, goardiak isuna jarri nahi dio eta gelditzeko esaten dio. Gidariak ez zekien zergatik agindu zion gelditzeko eta azalpenak eskatu zizkion.

Goardiak ez zeukan azalpenik ematerik baina aukera bat eman zion isuna kentzeko. Bi galdera egingo zizkion eta bat ondo erantzunez gero, isuna kenduko zion.

GZ-ak: - Imajinatu gaua dela eta errepidean bi argi ikusten dituzula...Zer da?

G-ak: - Kotxe bat.

GZ-ak: - Oso ondo!!baina, zein markakoa?

G-ak: - Nola jakingo dut, ba? ez dakit, Mercedes bat?

GZ-ak: - Ba ez, ez duzu asmātu, Nissan bat da.

G-ak: - Kauen!

GZ-ak: - Beste aukera bat daukazu. Imajinatu gaua dela eta errepidean argi bat ikusten duzula. Zer da?

G-ak: - Motorra.

GZ-ak: - Oso ondo!!baina, zein markakoa?

G-ak: - Nik zer dakit ba!Suzuki bat?

GZ-ak: - Ba ez, Vespa bat da. Sentitzen dut baina isuna jarri beharko dizut.

G-ak: - Nik zuri orain galdera bat egin ahal dizut?

GZ-ak: - Bai noski, bota!

G-ak: - Imajinatu gaua dela eta errepidean emakume bat ikusten duzula...honek, gona txiki-txiki bat darama eta eskuan etengabe mugitzen ari den poltso bat dauka eta titiak agerian ditu. Nor da?

GZ-ak: - Emagaldu bat.

G-ak: - Baina zein? Zure ama? Zure arreba? Zure alaba? Zure amama?.....





# EUSKALTZAINDIAREN ARAUAK

1

## BAT-BATEAN, BEHINIK BEHIN, BATIK BAT (\*)

*Bat-batean* XVII. mendearen erdialdeaz gero erabiltzen da Iparraldean eta XVIII.aren erdialdeaz gero Hegoaldean. Esapide horrek badu aldaera bat, *bet-betan*, XVIII. mendearen hasieraz gero Iparraldean erabiltzen dena. Lehen aldaerari dagokionez, literaturan erabili izan diren grafiak *bat batean* eta, batez ere, *bat-batean* dira. Gaur egun askotan ikusten den *bapatean* idazkera ez da 1930 ingurua arte agertzen eta ez da 1970 ingurua arte ia erabiltzen. Bestalde, ez da inoiz Iparraldeko tradizioan azaltzen. Orobat, *bet-betan* aldaerari dagokionez, ez da ia idazkera *p*-dunik literatura tradizio guztian. Euskaltzaindiak hitz elkartuak idazteko eman dituen gomendioen arabera, *bat-batean* da esapide honi dagokion idazkera.

*Behinik behin* esapidea Zuberoakoan izan ezik gainerako literatura tradizio guztietan erabiltzen da, nahiz Hegoaldean maizago agertzen den. Idazkera *p*-dunak, ia gipuzkerazko testuetan soilik gertatzen dira, XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroz, eta oro har *behinik behin* da tradizio hoberena duen idazkera, are XX. mendean. Bestalde, azken urte hauetan euskara batuak grafia *p*-dunetan erabat baztertzea ekarri du, antza denez.

*Batik bat*-i dagokionez, ez du aurreko esapideak duen literatura tradizioa, ez baita ia 1930 arte azaltzen testuetan, eta Hegoaldekoa soilik baita. Esapide honetan, bestalde, badirudi ia hasieratik bertatik grafia *p*-dunak *p* gabeak adina erabili direla, are ereduzko idazleen artean. Euskara batuan ere bi formak, *batipat* eta *batik bat*, ageri dira, nahiz bietan lehena gehiago. Dena den, *batik bat* grafia erregularragoa da, horrelako egitura duten gainerakoekin eta hitz elkartuei buruz emandako gomendioekin konparatuz.

(\*) Oharra: ikus *Euskera* 1992, 2, 37. liburukia (2. aldia) 721. orritik aurrera.

**Beraz, Euskaltzaindiak hau erabakitzen du: idatz dadila euskara batuan bat-batean (eta halaber bet-betan), eta ildo beretik bat-bateko eta bat-batekotasun; orobat, idatz dadila euskara batuan behinik behin eta batik bat.**

Honekin batera, Euskaltzaindiak gogorarazi nahi du esapide hauen ahoskerak betiko legeen arabera egitea ongi dela (*batipat*, adibidez).

(Euskaltzaindiak, Bilbon, 1994ko urriaren 28an onartua)



EUSKALTZAINDIA





Bekosolo parkea z/g  
Etze horia / Casa Amarilla  
94 426 28 02

[etxebarri@euskalnet.net](mailto:etxebarri@euskalnet.net)

## UDA ERE EUSKARA IKASTEKO SASOIA DA

Este verano puedes seguir estudiando euskera en el Euskaltegi de Etxebarri

Aurten euskara ikasten jarraitu ahal izango duzu Etxebarriko Euskaltegian

Todos los niveles  
EGA  
Perfiles  
Oral

Maila guztiak  
EGA  
Hizkuntza Eskakizunak  
Mintzamina

SUBVENCIONADOS POR EL  
AYUNTAMIENTO

UDALETXEAK DIRUZ  
LAGUNDUTA

MATRICÚLATE EN JUNIO

MATRIKULAK EKAINEN



**ULIBARRI**  
EUSKALTEGIA